



ITURRI ONDOAN

2021

Uztaileko ostiraletan - Zumardian



ITURRI ONDOAN



"Iturri zaharretik
edaten dut,
ur berria edaten,
beti berri den ura,
betiko iturri zaharretik."

(Joxean Artze)

Etxeetan urik ez zegoen garaian, urrutiko iturrietara joaten ginen ur bila. Gerora ubideek ura etxe ondora ekarri zuten eta iturri eder askoa eraiki zuten herriko plazan. Gaur egun, etxeetan bertan dugu ura, nahi beste.

Hala ere, etxeko ura eta iturrikoa ez da berdina izaten. Iturriko ur fresko eta goxoak tira egiten digu. Horregatik udaro Iturri Ondora etorri ohi gara KULTU-URA egarria asetzerara; bai urrutitik ekarritako uraz baita Deba bertako harkaizpeetan pilatutakoaz ere.

Musukoak eta distantziak gorabehera, Iturriko zipriztinek, tantek eta txorrotek asetuko zaituzten esperantzan etorriko zaretenoi ongi etorri!

Mikel Aizpurua-2021

Arineketan

Uztailak 2
tradizio berritua

22:00 h.

“Musika tradizioa dantzatzeko”

“**Arineketan**” musika eta dantza emanaldia da. Duela 200 urte jasotako doinu eta erritmo tradizioaletatik abiatu eta, itxuraldatuz, gaurkotzea da helburua, jazz, pop edo latin musikekin jolastuz. Euskal dantza izanik proiektuaren mamia, **Iñar Sastre** (piano) eta **Jagoba Astiazaran** (txistua) musikariek **Haatik dantza konpainia**rekin elkarlanean sortu dute ikuskizuna, eta esperientzia handiko musikariak izango dituzte oholztan lagun, **Ainara Ortega** abeslaria, **Xabi Zeberio** (biolina) eta **Agate Amilibia** (txeloa).

Errepertorio tradizionala berritu eta gaurkotu daitekeela erakutsiko dute, umorez eta dibertsioz. Izango da zer kanta eta dantza.



Debako emanaldian **Kulunka dantza taldearen** kolaborazio berezia izango dute.

EUSKAL HERRIKO MUSIKA BULEGOA SARIA jaso du ikuskizunak.

Partaideak:

Pianoa: Iñar Sastre • Txistua: Jagoba Astiazaran

Ahotsa: Ainara Ortega • Biolina: Xabier Zeberio

Txeloa: Agate Amilibia • Dantzariak: Haatik dantza Konpainia



Errimak bi oinetan

Uztailak 9
dantza eta bertsoa

22:00 h.

“Dantza berriak bertsoei jarriak”

Dantza eta Bertsoa gurutzatzen den lekuan hasi zen sormen honen bidaia. Konpainiak sormenezko lurralde berriak esploratzen jarraitzen du eta oraingoan bertsolaritzaren soinua mugimendu garaikide bihurtu du.

GARAI BATEKO ETA GAURKO BERTSO ETA DOINUEZ OSATUTAKO EMANALDI ENTRETENIGARRI ETA DIBERTIGARRI BAT.

Sustrai Colina, Xalbador, Aitor Mendiluze, Lazkao Txiki, Uxue Alberdi, Odei Barroso eta bertsolari gehiagoren errimekin egingo dute dantza bost dantzarik. Igelaren bandak jarri die soinua bertsoei, eta **Thierry Biscary, Maddalen Arzallus** eta beste hainbatek jarri diete ahotsa.



Bertso ariketa eta jokoak dantzara eramatea da emanaldi honen berezitasuna edo ezberdintasuna, eta horien bidez gaurkotasunari buruzko gogoetak plazaratzea, kantu ezagunei eta bertso sorta zahar eta berriei mugimendua emanez.

HAATIK Dantza

Zuzendariak: Aiert Beobide eta Unai Elizasu



Begiradak

Uztailak 16
literatura eta irudiak

22:00 h.

Begira jarrita egongo zara agian, aurtengoan **BEGIRADAK**ek bideari eutsiko ote dion, edo beste hainbat gauza bezala jausi ote den gure Begirada paretik. Eta begira! Bai, aurtengoan ere bai; badator zortzigarrenez indarberrituta! Badatoz lehengo hainbat begi begirada berriak eskaintzeko prest beti, eta, urteroko moduan, badatoz saiora batu diren begi berriak ere, oholtza gainetik begiradak estreinatzeko irrikaz.

Zenbat ertz ditu irudi batek? Zenbat argi-itzal bideo batek? Zenbat egia oso, egia erdi eta egia uste albiste batek? Bizitza ez baita; begiradek egiten dute!

Aurtengo honetan, errealitatearen mugarik eza agerian jarriko digute 16 begiradek, 10 irudi edo bideori jarriek. Eta bi musikari debarrek horietako Begirada batzuk jantziko dituzte gainera, haiek ere berdin, beren gustu eta erara.

Begiradak-en asmoa? Gu geu, debarrok, kultur sortzaile izan gaitezkeela sinestea, erakustea, eta gozatzea; kultura bertatik bertara eskaintzea; eta zu, ikusle, parean begira, begirik bildu gabe egon zaitezen saiatzea.



Begiradak-en nahia? Datorren urtean zure begirada besteo-nari batzea!

Begiradak Taldea

Musikariak: Josu Salegi, Miguel Laguna • **Irudigileak:** Inma Alberdi, Willi Berasaluze, Esti Beristain, Iñaki Elosua, Ernesto García, Zuriñe Goikoetxea, Aritz Mancisidor, Nora Mugartza, Aitor Oñederra, Uxue Santxo • **Idazleak:** Iraia Agirrezabala, Antton Aizpurua, Goizane Aizpurua, Eider Aldalur, Ketxus Amasorrain, Rexu Arakistain, Ane Bastida, Nagore Dorronsoro, Beñat Escudero, Arantza Iriondo, Itsaso Itziar, Julia Ron, Mari Seara, Ainara Sedano, Mattin Urbieto, Amaia Zinkunegi • **Aurkezlea:** Alazne Txurruka • **Kartela:** Nere Oria, Javier Otazu



Ez dok Ero

Uztailak 23
antzerkia

19:00 h.

**“Euskal Herriko antzoki batean,
zeinaren izena ez dudan gogoratu nahi...”**

Euskal kultura, euskal antzerkia eta euskal gizartearen irudi deformatua, barregarria eta aluzinatua. Euskal Antzerkiaren “road movie” eroa. Literatura unibertsaleko arketipo ezagunenera joz gero, Mikelek On Kixoteren irudia ekarriko digu gogora, idealismo erabatekoa, ongia egiteko gogo eutsiezina, gloria erdiesteko grina eta errealtatearen interpretazio eszentrikoaz. Patxok Santxo Panza baten itxura hartuko du, bere pragmatikotasun erabatekoa, anbiziorik eza ikaragarria eta baldarkeriarekin. Bestea bezain zoroa, ez bada gehiago.

“Mikelote eta Pantxo” bikote artistikoa desegin da. Haien formula komikoa gastatua zegoen, eta belaunaldi berriek haien tokia okupatu dute. Pantxok ondo hartu du behartutako erretiroa. Eskenatokietatik urruntzeko gogoa zuen aspalditik, bizimodu lasai eta normalizatua desiratzen zuen, artearen eromenetik urrun. Mikelotek ez du bukaera onartu nahi. Antzerkiaren pozoia sakon errotuta dago bere zainetan. Eta pozoiz horrek burua galtzeraino eramango du.



Sarrera: 10€

TARTEAN Teatroa

Egilea: Patxo Telleria

Zuzendaria: Jokin Oregi

Aktoreak: Mikel Martinez eta Patxo Telleria



Willis Drummond


Uztailak 30
musika

22:00 h.

“Garai bereziendako
kontzertu berezia”

Sarrera: 10€

Duela urte bat, “Zugzwang” gure seigarren estudioko lana kaleratzen genuen, es-
kenatokietan aurkezteko gogo handiarekin... Bi kontzertu Euskal Herrian eta mun-
duko itzuli baten ondotik, 2020ko udaberrian ixildu ginen, bortxaz...



Geldialdiaren denboran, Willis Drummond formatuz
aldatu da eta Vincent Bestaven "Botibol" gure untzira
igo da, bere ahotsa, kitarra eta teklatuekin.

Willis Drummonden kantuak beste ikuspuntu batekin
landu ditugu 4ak batera eta orain zuen aurrean jo-
tzeko momentua etorri da, azkenean!

Jurgi Ekiza: ahotsa eta kitarra

Felix Buff: bateria, teklatuak

Xan Bidegain: baxua

Vincent Bestaven: ahotsa, kitarra, teklatuak





COVID-19

JARRAIBIDEAK

- Antolatzaileak identifikatuta egongo dira eta maskara zein eskularruak erabiliko dituzte sarrera-irteeretan. Egin kasu haiek esandakoei.
- Maskara uneoro jantzita eduki.
- Aulkiak ez mugitu.
- Poliki ibili sarrera-irteeretan. Pilaketak ekidin. Mantendu segurtasun distantzia.

DIRECTRICES

- La organización llevará elementos de identificación, mascarilla y guantes que utilizarán en las entradas y salidas. Haz caso de lo que dicen.
- Usa la mascarilla en todo momento.
- No muevas las sillas.
- Presta atención en las entradas y salidas. Evita las aglomeraciones. Respeta la distancia de seguridad.




“Arineketan”

Uztailak 2 - 22:00
tradizio berriua



“Errimak bi oinetan”

Uztailak 9 - 22:00
dantza eta bertsoa



“Begiradak”

Uztailak 16 - 22:00
literatura eta irudiak



“Ez dok Ero”

Uztailak 23 - 19:00
antzerkia

Sarrera: 10€



“Willis Drummond”

Uztailak 30 - 22:00
musika

Sarrera: 10€

Bonoak: 15€



ITURRI ONDOAN



Uztaileko ostiraletan
Zumardiko **iturri ondoan**

Sarrerak: DEBAKO TURISMO BULEGOAN
(ekainaren 21etik aurrera)

